

Gure Irakasle argia

Euzkotarik illunbean genebiltzan; gezufa egizat aiturik, osoki bidetaturik gindozin efoitz zolarafio amil-amilka.

Bana ¡gure zoriona! Jainkoa urikaldu zen Euzkadiz eta igofi zizon seme bizkof-azkar-azkara, gaizka-bidean fiende ta mendien buruan paratu zezan bere abefi gaxoa.

Irakasten asi baño-len aztertu zituen ongi buru guzietik Aberiyak ikasgaitzat zauzkiyen gayak eta esku-aftean zekafzkiyen auzi guzietik argi-argi ezagututa,, etzen berialaxen lotu irakaskuntzan.

Ongi zekiyen ikasleak irakaslien efanari baño gegayo begitzen diotela egipeneri, ta egiva ezagutu bezin agudo ekin zivon euzko-bizitz zintzoari.

Eun aldiz aztertu dute bizitz ori bere etsai amofatuak, eta ez da yago orañik akatzik agefutu dionik.

Bere irakaspén eta egiñenak batera zetozen-eta, elkari esku zemayoten edefki. Umeak ama bezala ziran.

Irakasleak ba-zekiyen bere irakasgoa sail eta gogofa zela. Eta ¿zer dagi? Indaf-billa doa goiko indaf-emalleagana, Urtzi-gana.

Ekaitz boñitiz eta erauntsi ikaragafiak bere irakaskuntzak zirela-ta, softuko zioztela ba-zekusen irakasleak, eta goiko urgazi-billa doa Deun-Ifiak'ren etxerat, eta antxen dagitz, ezin obeki, gogo-inafikunak, eta berialaxen asten du bere irakasgoa.

Lan sail eta neke aundikoa, ziñez. Irakasleak dantzu ekaitzaren ofoa; kasail beltzan lotzen zaizkiyo anak eta arotzak. Irañak eta gezufak asmatzen ditiozte pillaka. Alde orotik etsayak dinurrate Txirotasun, gabezi espetxe gexotasun eta eriotza hera dikurtz bere ondoan. ¿Izitu ta ikaraturik utziko ote du bere irakasgoa?

Arana-Goiri'taf Sabin'ak anei aldiz ixuriko du azken odol-tantarafio.

¡Euzkotafak!

Burutsik yafi Irakasle argi-zintzo unen aintziñean, eta Jainkoa'ri dagizkiogun eskefak Euzkad'i'ri zegokiyon Irakasle ta Gaizkalea Sabin baitan eman zigulakotz.

GORTSAIN.

¡IRAUN BETI!

Jeltzale zintzoa zerala uste dezun
gaste sutsua,
jakin zazu ongi, Jel-bidia ez dala
lorezko bidea;
baizik estua, aldapatsua, elof-arantzar
dena estaldua;
begira bestela, Sabin Irakaslea, bide ortan
beti miñdua.

Iñoiz loretxo bat afkitze^o ba-dezu.
anei arantza;
¿ez bild^ortu, ene euzkelduna! zure bidia
orixen da...
bide zuzena, Goikoarena; ipiñi Bera'gan
zure ustia;
jaurera!... ta bide-azkenean arkituko dezun
Donokiya.

Izaun beti, ene euzkeldun ona,
Jel-naitasunean;
¿z bild^ortuta atzera egin- ¿ez!
ekaitz-^ogu^o gogoria^o;
begira gora ta... ¡jafai beti!
ekin^odako bidian-
¡jafai beti! Arana-Goiri'k bezela,
¡il-afrian!

jel-bidia dala zure bidia, zorionean
dezu igari;
-¿tindu epelkeriya, ta sendo-sendo ekin
aklatzari;
Sabin'ak bezela su-gaf^oez ekin diozu
bide ori;
Berak bezela, ¡bizi guzian! ¡il-afrian!...
¡iraun beti!

TENE.



Sabin, 30 urte ebasala

¿Nortzuk, ba?

Eguberdi euritsuba ta illuna da
Arin eta goguak-itun, Bilbaoko txaide edo, kaliak-ziaf
gixon-taldetxu bat bultzija artzen dua.
Gixon onei bestetxuk zerozer itanduten dautsie. Arek, be-
gijak-beti, labur erantzun dabe.
Eztakigu zegañik, baina ituna, alegia, zabaltzen da.
¿Zer jazo da?

* * *

Añatsaldian, batzoki batzutan ikurñiak, zapi baltzaz orni-
duta jaso dira. Batzoki oretan bazkidiak batzaldun dira ta
zerozer irabagi dabe. Poza ta adoria igesi dira.
¿Zer jazo da?

* * *

Bijaramonian, izpafingijak idazkun luze ta goralgafijak
argifaldu dabez. diñoenez zoriñatiz andija dala-ta.

Goxetik gixonik asko, ixilik eta malsoka bultzija-geldoki-
ra eldu da.

Gixonok eztabe itz-egifen, ezta alkar begiratu be, euren
begijak, malkoz bustijak ez-erakustiafen.